




# ENPLEGU IGURIKIMENAK

## Enpleguari buruzko igurikimenak positiboak dira oraindik Europan

ENPLEGU IGURIKIMENAK  
EUROGUNEA

2022KO EKAINA  
**110,9**




Ekainean, Europako Batzordeak enpleguari buruz argitaratzen dituen igurikimenek zertxobait okerrera egin zuten. Izan ere, Euroguneari dagokion indizea 110,9 puntukoa izan zen, hau da, aurreko datua baino ia bi puntu txikiagoa eta aurtengo otsaileko datua, serie historikoaren balio maximoa markatzen baitu, baino ia sei puntu txikiagoa. Hala eta guztiz ere, estatistika horrek 2000. urtetik erregistratutako batez besteko balioa baino


hamar puntu luze gorago dago. Egoera antzekoa da Europar Batasunean, hilabete horretan 110,6 puntukoa izan baitzen indize hori. Datu horien arabera, enpleguari buruzko igurikimenak ez dira ekonomiari buruzko aurreikuspenak bezain azkar okertzen ari. Izan ere, ekaineko sentimendu ekonomikoaren indizea 104,0 puntura jaitsi zen euroaren eremuan eta 102,5 puntura, berriz, Europar Batasunean.

ENPLEGU IGURIKIMENAK  
EUROPAR BATASUNA


2022KO EKAINA  
**110,6**



## ENPLEGU IGURIKIMENAK ALEMANIAN




## ENPLEGU IGURIKIMENAK FRANTZIAN




Herrialde nagusien bilakaera multzoarentzat deskribatutakoaren antzekoa izan zen, baina badira ñabardura batzuk aipatzeko modukoak. Hala, Italian (111,4) enpleguaren gaineko baikortasuna berreskuratu zen, eta Herbehereetan (112,4), berriz, okertzea marjinala baino ez zen izan. Tarteko eremuan Espainia (108,0) eta Alemania (111,9) daude, puntu batekoa baino galera handixeagoekin, eta emaitzarik txarrena Frantziak izan zuen (105,0), hiru puntuko okertzea jaso zuelako.


## ENPLEGU IGURIKIMENAK HERBEHERETAN



## ENPLEGU IGURIKIMENAK ALEMANIAN



## ENPLEGU IGURIKIMENAK FRANTZIAN



Iturria: Europako Batzordea.